

**BEHARGINTZA BASAURI-ETXEBARRI, SL SOZIJETATE PUBLIKOAREN
KONTRATAZIOKO BARNE JARRAIBIDEAK, ARAUBIDE HARMONIZATUARI
ATXIKITA EZ DAUDEN KONTRATUENTZAT (2010eko abenduaren 31an
eguneraturik)**

1. HITZAURREA

2. XEDAPEN OROKORRAK

- 2.1. APLIKAZIO EREMUA
- 2.2. KONTRATUEN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

3. ARAUBIDE HARMONIZATUARI ATXIKI GABEKO KONTRATUAK

3.1. APLIKATU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- 3.1.1. KONTRATAZIO ORGANOAK
- 3.1.2. LAGUNTZA ORGANOAK
- 3.1.3. KONTRATISTAK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK
 - 3.1.3.1. Trebetasun baldintzak
 - 3.1.3.2. Jarduteko gaitasuna
 - 3.1.3.3. Kontratatzeke debekuan murgilduta ez egotea
 - 3.1.3.4. Kaudimeneko gutxieneko baldintzak
 - 3.1.3.5. Sailkapena
- 3.1.4. KONTRATUAREN ELEMENTUAK
 - 3.1.4.1. Kontratuaren xedea
 - 3.1.4.2. Kontratuaren iraupena
 - 3.1.4.3. Prezioa
- 3.1.5. KONTRATUA PRESTATZEA
 - 3.1.5.1. Eskaera
 - 3.1.5.2. Baldintza agiriak
- 3.1.6. KONTRATUA SINATZEA
- 3.1.7. KONTRATUA GAUZATZEA

3.2. BALDINTZA AGIRIA

3.3. ESLEIPEN PROZEDURAK

- 3.3.1. OBRA KONTRATUAK
 - 3.3.1.1. Zenbatekoen araberako bereizketa
 - 3.3.1.2. Obra kontratuak, 49.999,99 euro arteko zenbatekoan.
 - 3.3.1.3. Obra kontratuak, 50.000 eta 299.999,99 euro arteko zenbatekoan.
 - 3.3.1.3.1. Prozedura negoziatua
 - 3.3.1.3.2. Prozedura irekia edo mugatua
 - 3.3.1.4. Obra kontratua, 300.000 euro eta araubide harmonizatuaren araudipean ez dauden kontratuentzat Europako Batzordeak finkatutako gehieneko zenbatekoaren artean.

3.3.2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK)

3.3.2.1. Zenbatekoen arabera bereizketa

3.3.2.2. 17.999,99 euro arteko kontratuak.

3.3.2.3. 18.000 eta 99.999,99 euro arteko zenbatekoa duten kontratuak.

3.3.2.3.1. Prozedura negoziatua

3.3.2.3.2. Prozedura irekia edo mugatua

3.3.2.4. Kontratua, 100.000 euro eta araubide harmonizatuaren araudipean ez dauden kontratuentzat Europako Batzordeak finkatutako gehieneko zenbatekoaren artean.

3.4. JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

3.5. BITARTEKARITZA

4. KONTRATATZAILEAREN PROFILA - PUBLIZITATE PRINTZIPIOA

1. HITZAURREA

BEHARGINTZA BASAURI-ETXEBARRI, SL (BHG aurrerantzean) merkataritzako sozietate bat da, eta bere kapitala Basauri eta Etxebarriko Udalei dagokie.

Bere jarduera, Estatutuen 2. artikuluan finkatzen den bezala, honetan oinarritzen da: *"enplegua sustatzea tokiko garapenetik mugarte guztietan. Horretarako, esku-hartze integrala egingo da ildo bikoitzetik: Laneratzea beste norbaiten kontura eta ekintzaileen kultura eta enpresa proiektuak bultzatzearena sustatzea. Horrek eragina edukiko du pertsonen laneratzea babestean, batez ere inguruabar ezberdinengatik laneko merkatura iristeko zailtasunak dituzten horienetan. Erakunde publiko eta pribatuetatik helburu berdinarekin garatzen diren ekintza guztiak koordinatu eta integratuko dira, eta horiek osatzeko beste batzuk egingo dira".*

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen eraginetarako (aurrerantzean SPKL), BHG **"sektore publikoaren" barruan kokatzen** da (Lege horretako 3.1.d) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik), eta Administrazio Publiko bat ez bada ere, Lege horretan **"botere esleitzaitzat"** jotzeko finkatzen diren ezaugarri guztiak biltzen ditu (lege berdineko 3.3. artikulua). Ondorioz, **SPKLan xede horretarako aurreikusi diren manuak aplikatu behar zaizkio.**

Horri dagokionez, SPKLko 175. artikulua finkatu egiten du Administrazio Publikoen izaera ez duten botere esleitzaitzen organo eskumendunek barruan derrigor bete beharreko jarraibide batzuk onetsiko dituztela, kontratazio prozedurak arautzen dituztenak. Horrela, bermatuta geratzen da publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun eta bereizkeria ezeko printzipioen eraginkortasuna. Xede horretarako, BHGren Administrazio Kontseiluak, 2009ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, Kontratazioko Barne Jarraibide hauek onetsi zituen.

Abuztuaren 5eko 34/2010 Legeak aldarazpenak ekarri zizkion SPKLari. Ondorioz, beharrezkoa izan da Kontratazioko Barne Jarraibideak aldarazpen horietara egokitzea. Zentzu horretan, kasuan kasuko aldarazpenak egin dira BHGren Kontratazioko Barne Jarraibideetan, eta, horrela, eguneraturik geratu dira 2010eko abenduaren 31n.

2. XEDAPEN OROKORRAK

2.1. APLIKAZIO EREMUA

BHGren Kontratazioko Barne Jarraibide hauen xedea kostubidezko kontratu guztietako kontratazio prozedurak arautzea da, haien izaera juridikoa edozein dela ere, eta hirugarren batzuekin egiten direnean. Salbuespenak hurrengo kasu hauek izango dira:

1. SPKLren 4. artikuluan finkatutako kontratuak, SPKLren aplikaziotik kanpo geratzen direlako.
2. Araubide harmonizatuari atxikitako kontratuak, hau da, obra kontratuak, hornidurakoak eta zerbitzuetakoak, betiere, haien balioa SPKLk xede horretarako finkatutako kopuruen berdinekoak edo gehiagokoak badira. Modalitate eta kopuru horiek eguneratu egiten direla ulertuko da urtero, xede horretarako SPKLko Hamalagarren Xedapen Gehigarriak aipatutako baldintzetan Europako Batzordeak egiten dituen berrikuspenen ondotik.

2.2. KONTRATUEN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

BHGrik egindako kontratuak kontratu pribatu izatearen izaera dute.

BHGrik egindako kontratuak prestatu eta esleitzerakoan, Kontratazioko Barne Jarraibide hauek, SPKLa eta hura garatzeko xedapenak jarraituko dira. Ordezko izaerarekin, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko arauak. Eraginei, betetzeari eta iraungitzeari dagokienez, kontratu hauek zuzenbide pribatuaren arabera arautuko dira.

3. ARAUBIDE HARMONIZATUARI ATXIKI GABEKO KONTRATUAK

Kontratu hauek izango lirateke:

- Europako Batzordeak Araubide Harmonizatuari Atxiki Gabeko Kontratuentzat finkatutakoa baliotzat duten obra kontratuak.
- Europako Batzordeak Araubide Harmonizatuari Atxiki Gabeko Kontratuentzat finkatutakoa baliotzat duten hornidura kontratuak.

- Zerbitzu kontratuak, SPKLren II. Eranskinaren 1. kategoriatik 16.era bitarte kokaturikoak, betiere, horien balioa Europako Batzordeak Araubide Harmonizatuari Atxiki Gabeko Kontratuentzat finkaturikoaren azpitik egonez gero.

- Zerbitzu kontratuak, SPKLren II. Eranskineko 17. kategoriatik 27.era bitarte kokaturikoak, eta 13.2 artikulua horretan sartzen diren kontratuak, haien zenbatekoa edozein dela ere.

3.1. APLIKATU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

3.1.1. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratatzeko gaitasuna BHGren Estatutuek xedatzen duten horretatik dator, eta baita aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko kasuan kasuko arauetatik ere.

Kontratazio Organoa bere eskumenen esparruan kontratuak egiteko eskumena duena izango da. BHGren kasuan, Kontratazio Organoa Administrazio Kontseiluaren presidentea eta idazkaria dira, mankomunaturik eta elkarrekin jardunez.

Kontratazio Organoak aukera edukiko du, kasu bakoitzean, espresuki eskumena emateko egokitzat jotzen dituen pertsoneri, kontratuaren inguruko jarduera zehatzak gara ditzan hirugarren horrek.

3.1.2. LAGUNTZA ORGANOAK

Kontratazio mahaia.

50.000 eurotik aurrerako obra kontratuetan (BEZ kanpo), edo zerbitzu/hornidura/bestelako kontratuetan (obrakoak salbu) 18.000 eurotik aurrera (BEZ kanpo), Kontratazio Organoak Kontratazio Mahaiaren laguntza edukiko du, eta azken hori izango da eskaintzak baloratzeko organo eskumenduna.

Kontratazio txiki, ohiko eta negoziatuetan, haren esku-hartzea nahibadakoa izango da Kontratazio Organoarentzat.

Haren eraketa hau izango da:

- Presidentea: Sozietatearena izango da, eta funtzio hau bertako beste kide bati eman ahalko dio.
- Idazkaria: Sozietatearena izango da, eta funtzio hau bertako beste kide bati eman ahalko dio.
- Organoko kideak:
 - a) Ordezkeri bat talde politiko bakoitzeko, Administrazio Kontseiluan agerpena badute.
 - b) BHGren koordinatzailea.

3.1.3. KONTRATISTAK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK

BHGrekin kontratuak sinatu ahalko dituzte hurrengo betekizunak bete eta egiaztatzen dituzten kontratistek:

3.1.3.1. Trebetasun baldintzak

BHGrekin kontratatu ahalko dute, bakar-bakarrik, pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak, jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzekeo debeku batean murgilduta ez badaude eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, edo, bestela, hala eskatzen den kasuetan, behar bezala sailkatuta badaude.

Batasunekoak ez diren enpresen kasuan, SPKLko 44. artikuluan ezarritakoa da aplikatu beharrekoa.

Jarduteko gaitasuna eta gaitasun teknikoa eta kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa BHGrik xede horretarako Administrazio Baldintzen Agirian finkatzen diren bitartekoak erabilita egiaztatu beharko da. Horiek SPKLk ezartzen dituen horien artekoak izango dira.

3.1.3.2. Jarduteko gaitasuna

Jarduteko gaitasunari dagokionez, 46. artikuluan (pertsona juridikoen gaitasuna), 47. artikuluan (batasuneko enpresen gaitasuna) eta 48. artikuluan (enpresaburu batasunen gaitasuna) eta 61. artikuluan (gaitasuna frogatzea) ezarritakoa aplikatu beharko da.

3.1.3.3. Kontratatzekeo debekuan murgilduta ez egotea

Administrazio Baldintzen Agiriak finkatu egingo dituzte BHGrekin kontratatzekeo debekuak, eta baita horietan murgilduta ez egotea frogatzeko bideak ere. Edonola ere, BHGrekin ezin izango dute kontraturik sinatu pertsona fisiko edo juridikoek, horiek SPKLn ezarritako inguruabarretatik baten batean badaude (49. artikulua kontratatzekeo debekuetarako, 62. artikulua horietan ez egotea frogatzeko bideetarako).

3.1.3.4. Kaudimeneko gutxieneko baldintzak

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta gaitasun teknikoko gutxieneko baldintzak kasu bakoitzean Klausula Administratiboen Agiriak finkatzen dituenak izango dira, eta bertan aurreikusitako moduan frogatu beharrekoak izango dira.

Baldintza agiri horretan, kaudimena eta gaitasuna justifikatzeko aurkeztu behar diren agiriak ez ezik, kaudimen hori egiaztatzen duten gutxieneko mugak ere finkatuko dira.

3.1.3.5. Sailkapena

Sailkapen administratiboa eskatuko da, bakar-bakarrik, Klausula Administratiboen Agirian aurreikusi egin bada.

3.1.4. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

3.1.4.1. Kontratuaren xedea

BHGrik kontratuak egingo ditu horiek beharrezkoak direnean erakundeko xedeak bete eta egiteko. Proiektatu den kontratuaren bitartez estali nahi diren beharren izaera eta tamaina, nahiz horiek betetzeko xedea eta edukiaren komenigarritasuna, zehatz finkatuko dira. Horren guztiaren berri prestakuntzako dokumentazioan jaso beharko da.

Kontratuaren xedea berariaz finkatuko da Klausula Administratiboen Agirian.

3.1.4.2. Kontratuaren iraupena

BHGrik finkatu egingo du zein den kontratuen iraupena; horretarako, aintzat hartuko du prestazioen izaera, finantzazioaren ezaugarriak eta aldizka horiek lehiaren pean jartzeko beharra.

Kasuan kasuko luzapenak aurreikusi egingo dira, hala badagokio eta espresuki, Klausula Administratiboen Agirian.

50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten obra kontratuak (BEZ kanpo), eta 18.000 eurotik beherako beste edozein kontratu (BEZ kanpo), zuzeneko esleipenaren xede badira, ez dute urtebete baino gehiagoko iraupena edukiko, eta ez dira luzapenaren xede izango.

3.1.4.3. Prezioa

Prezioa benetakoa izan beharko da, edo finkatu beharra adieraziko da, eta eurotan jakinarazi beharko da.

Prezioa banakako prezioetan edo oroharreko prezioan jarri ahalko da.

Prezioen berrikuspena egin egingo da, hala aurreikusi bada kasuan kasuko Klausula Administratiboen Agirian.

Ez betetzeagatik zehapen klausulak jartzerik egongo da.

Kontratuen balio zenbatetsia SPKLren 76. artikuluan ezarritakoaren arabera finkatuko da.

Ordinketa araubidea Klausula Administratiboen Agirian edo kontratuan finkatuko da, aplikatu behar den araudiak jartzen dituen mugen barruan, betiere.

3.1.5. KONTRATUA PRESTATZEA

3.1.5.1. Eskaera

3.000 eurotik gorako erosketen kasuan (BEZ kanpo), kontratazioa hasteko urrats hau egin beharko da: BHGko barruko langileen aldetik "Kontratazio eskaera" izeneko formularioa bete. Formulario horrek, edozein kasutan, jaso egingo du zeintzuk diren proiektatu nahi den kontratuarekin estali nahi diren beharren izaera eta tamaina, eta baita horiek betetzeko xedea eta edukiaren egokitasuna ere.

3.1.5.2. Baldintza agiriak

Derrigorrezkoa izango da Baldintza Agiri bat egitea 50.000 eurotik gorako obra kontratueta (BEZ kanpo).

Obrakoak ez diren kontratueta Klausula Administratiboen eta Ezarpen Teknikoen Agiria landu beharko da, betiere, zenbatekoa 18.000 eurokoa edo gehiagokoa bada (BEZ kanpo).

3.1.6. KONTRATUA SINATZEA

Kontratua idatziz egingo da.

Kontratua zuzenean esleitzera jotzen bada, formalizazio hori kasuan kasuko aurrekontua egitea eta hura idatziz onestea izan daiteke bakarrik.

Klausula Administratiboen Agiria lantzen ez bada, sinatzen den kontratuak SPKLren 26. artikuluan aipatzen diren alderdiak sartu beharko ditu.

Inolaz ere, ez dira kontratuan sartuko Baldintza Agirian alderdientzat aurreikusi diren eskubide eta betebeharrak ez diren beste batzuk. Egindako eskaintzatik eta eratorritako zehaztapan eta esleipen egintzatik eratorritakoak jasoko dira.

3.1.7. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratuaren eragin eta iraungitzerako, Baldintza Agirian aurreikusitakoa da aplikatuko dena (horrek Administrazio Publikoen kontratazio araudiari hel diezaioke) eta, haren ordezkio modura, baita zuzenbide zibila ere.

3.2. BALDINTZA AGIRIA

Klausula Administratiboen Agiriak zehaztu egingo ditu hurrengo alderdiak, betiere, prozedura negoziatu bakoitzaren berezitasunak berezitasun:

- Kontratazio Organoa.
- Publizitatea, kontratatzailearen profileria iristeko modua eta publizitate gastuak.
- Kontratuaren xedea eta, hala badagokio, erlorik badagoen edo ez.

- Kontratu bidez bete beharreko beharrak eta aintzat hartu beharreko mota guztietako faktoreak.
- Litzizioaren oinarritzko aurrekontua eta, hala badagokio, haren banaketa urteko kopuru berdinetan.
- Kontratu izaera duten agiriak.
- Kontratuaren iraupena, eta, hala badagokio, egon daitezkeen luzapenak zehaztea.
- Kontratua esleitzeko prozedura: Prozedura irekia, mugatua edo negoziatua.
- Proposamenen aurkezpena:
 - Aurkezteko modua.
 - Modua eta edukiak (aurkeztu beharreko dokumentazioa).
 - Aurkezteko epea eta tokia.
- Kontratista:
 - Gaitasuna.
 - Jarrera baldintzak.
 - Kontratatzeko debekua.
 - Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa (agiriak eta gutxieneko mugak).
 - Gaitasun teknikoa eta profesionala (agiriak eta gutxieneko mugak).
- Ebaluazioa eta esleipena:
 - Esleipen irizpideak eta horien haztapena, edo, prozedura negoziatu bat denean, negoziazioaren xede diren alderdiak.
 - Onartutako proposamenen irekiera.
 - Kontratuaren esleipena eta bere jakinarazpena.
- Esleipendunak aurkeztu beharreko dokumentazioa eta horretarako duen epea.
- Kontratua sinatzea eta epea.
- Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
- Kontratua hartzea eta emandako prestazioaren berme epea.
- Prezioaren ordaintzen araubidea.
- Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak.
- Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Horrez gain, Klausula Administratiboen Agiriak hurrengo alderdiak zehazterik edukiko du:

- Finantzazioa.
- Aldaketak eta hobekuntzak: Adierazi baimentzen diren edo ez, eskakizunak, mugak, modalitateak eta horiek onartzen dituzten kontratuaren alderdiak.
- Prezioen berrikuspena (aplikatu beharreko formula edo indize ofiziala adieraziz), SPKLren 75.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Behin-behineko edo behin betiko bermeak.
- Sailkapena.
- Kontratuaren aldarazpena: Kontratua aldarazteko aukera badagoen edo ez esatea eta hura zein baldintzatan egin daitekeen esatea.
- Kontratatari jartzen zaion konfidentzialtasun betebeharraren zabalkunde objektiboa eta denbora barrukoa.

- Lagapena eta azpikontratazioa: Kontratua lagatzeko betekizunak adieraztea eta kontratistak horietatik zer prestazio edo zer portzentaje kontrata ditzakeen identifikatzea (SPKLren 209.2.c) eta 210.5 artikuluei dagokienez).
- Zehapenak berandutzagatik eta burutzapen akastunagatik.
- Ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez diren bestelako itun, klausula eta baldintza guztiak.

3.3. ESLEIPEN PROZEDURAK

BHGrik hurrengo esleipen prozedurak erabili ahalko ditu, kontratu mota ezberdinak eta horien kopurua gorabehera.

3.3.1. OBRA KONTRATUAK

3.3.1.1. Zenbatekoen arabera bereizketa

Obra kontratuari dagokionez, hiru prozedura ezberdin jarraituko da, obraren diru zenbatekoa gorabehera. Horrela:

a) Obra kontratuak, 49.999,99 euro arteko zenbatekoan.

b) Obra kontratuak, 50.000,00 eta 299.999,99 euro arteko zenbatekoan.

c) Obra kontratua, 300.000,00 euro eta araubide harmonizatuaren araudipean ez dauden kontratuentzat Europako Batzordeak finkatutako gehieneko zenbatekoaren artean.

Aipatu diren kopuru guztiak BEZ gabekoak direla ulertzen da.

3.3.1.2. Obra kontratuak, 49.999,99 euro arteko zenbatekoan.

Horrelako kontratuetan, **esleipen zuzenera** joko da orokorrean. Kasuan kasuko aurrekontua eskuratuko da, eta hura BHGrik onetsiko du. Ondoren, dagokion kontratua sinatuko da edo, bestela, aurrekontu hori espresuki eta idatziz onartuko da, hari emandako baietza jakinaraziz.

Kontratua bete dela egiaztatuta, prezioa ordainduko da, kontratistak kasuan kasuko faktura eta haren onarpena aurkeztu eta gero.

Hala eta guztiz ere, prozedura negoziatuari –irekia edo mugatua– ere heldu ahalko zaio; kasu horretan, jarraian datorren idatz zatian xedatutakoa da aplikatu beharko dena.

3.3.1.3. Obra kontratuak, 50.000,00 eta 299.999,99 euro arteko zenbatekoan.

Horrelako kontratuetan, esleipena prozedura negoziatua –irekia edo mugatua– izapidetzearen bitartez esleituko da. Aukeratu den prozedura zehatza zein den azaldu beharko da Klausula Administratiboen Agirian.

3.3.1.3.1. Prozedura negoziatua

Prozedura negoziatua aukeratzen bada, hurrengo izapideak bete beharko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera egiteko, BHGko barruko langileek "kontratazio eskaeraren" formularioa bete beharko dute.
- b) **Eskaintza eskaera:** Gutxienez, kontratuaren xedea gauzatzeko gaitasuna duen hiru enpresari eskatu beharko zaio eskaintza egitea.
- c) **Baldintza agiria:** Klausula Administratiboen Agiri bat landuko da, eta baita Ezarpen Teknikoen Agiria ere, edo, bestela, kasuan kasuko Obra Proiektua.
- d) **Publizitatea:** Lizitazioaren iragarkia eta ondorengo esleipena argitaratu egingo dira, gutxienez, kontratatzailearen profilean.
- e) **Ebaluazioa:** Klausula Administratiboen Agirian finkatu egingo dira enpresekin negoziatu beharreko alderdi ekonomikoak eta teknikoak zeintzuk diren.

BHGko langile teknikoek aldetik, "esleipenerako proposamen" arrazoitua egingo da. Argi jaso beharko dira egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, horiek onartu edo gaitzesteko edukitako arrazoiak eta egindako negoziazioak.

3.3.1.3.2. Prozedura irekia edo mugatua

Derrigorrez bete beharrekoak izango dira izapide hauek:

- a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera egiteko, BHGko barruko langileek "kontratazio eskaeraren" formularioa bete beharko dute.
- c) **Baldintza agiria:** Klausula Administratiboen Agiri bat landuko da, eta baita Ezarpen Teknikoen Agiria ere, edo, bestela, kasuan kasuko Obra Proiektua.
- d) **Publizitatea:** Lizitazioa, gutxienez, BHG entitatearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.
- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Administratiboen Agirian zehaztuko da.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak ezkutukoak izango dira eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, Klausula Administratiboen Agirian finkatzen den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratua esleitzeko oinarri hartzen diren irizpideak, nahiz haztapena egiteko balio dutenak, Kontratazio Organoak finkatuko ditu eta Klausula Administratiboen Agirian adieraziko dira.

Kontratuaren xedeari zuzenean uztartutako irizpideei heldu ahalko zaie, esate baterako: kalitatea, prezioa, obraren erabilerari uztartutako ordainsariak berraztertzeko erabili beharreko formula, prestazioaren burutzapen edo entrega epea, erabileraren kostua, ingurumen ezaugarriak edo gizarte eskakizunak betetzearekin zerikusia dutenak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, disponibilitatea eta ordezko piezen kostua, mantentze lanak, laguntza teknikoa, salmenta osteko zerbitzua edo antzeko beste batzuk.

Kontratazio Organoak orokorrean abantailatsuen den eskaintzari esleituko dio kontratua, Klausula Administratiboen Agirian aurreikusitako proposamenen balorazioa egiteko finkatzen diren irizpide objektiboei jarraiki eta esleipen proposamenaren bistan.

Kontratazio Organoak kontratua egindako proposamena gorabehera esleitzen ez duenean, erabakia arrazoitu egin beharko du.

3.3.1.4. Obra kontratua, 300.000 euro eta araubide harmonizatuaren araudipean ez dauden kontratuentzat Europako Batzordeak finkatutako gehieneko zenbatekoaren artean.

Horrelako kontratuetan, esleipena **prozedura irekia edo mugatua** izapidetzearen bitartez esleituko da. Aukeratu den prozedura zehatza zein den azaldu beharko da Klausula Administratiboen Agirian.

Prozedura irekia nahiz mugatua aukeratzen den alde batera utzita, hurrengo arau hauek aplikatuko dira:

a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera egiteko, BHGko barruko langileek "kontratazio eskaeraren" formularioa izenekoa bete beharko dute.

c) **Baldintza agiria:** Klausula Administratiboen Agiria landuko da (jarraibide hauetako B idatz zatiko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin) eta baita Ezarpen Teknikoen Agiri bat ere, edo, bestela, kasuan kasuko Obra Proiektua.

d) **Publizitatea:** Lizitazioa, gutxienez, BHGren kontratatzailearen profilean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta baita probintziako egunkari batean ere. Zer aukera hautatu den Klausula Administratiboen Agirian adierazi behar izango da. Esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da, gutxienez.

d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Administratiboen Agirian zehaztuko da.

e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak ezkutukoak izango dira eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, Klausula Administratiboen Agirian finkatzen den moduan.

e) **Ebaluazioa:** Kontratua esleitzeko oinarri hartzen diren irizpideak, nahiz haztapena egiteko balio dutenak, Kontratazio Organoak finkatuko ditu eta iragarkian nahiz Klausula Administratiboen Agirian adieraziko dira.

Kontratuaren xedeari zuzenean uztartutako irizpideei heldu ahalko zaie, esate baterako: kalitatea, prezioa, obraren erabilerari uztartutako ordainsariak berraztertze erabili beharreko formula, prestazioaren burutzapen edo entrega epea, erabileraren kostua, ingurumen ezaugarriak edo gizarte eskakizunak betetzearekin zerikusia dutenak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, disponibilitatea eta ordezko piezen kostua, mantentze lanak, laguntza teknikoa, salmenta osteko zerbitzua edo antzeko beste batzuk.

Kontratazio Organoak orokorrean abantailatsuena den eskaintzari esleitzeko dio kontratua, Klausula Administratiboen Agirian aurreikusitako proposamenen balorazioa egiteko finkatzen diren irizpide objektiboek jarraiki eta esleipen proposamenaren bistan.

Kontratazio Organoak kontratua esleitzen ez duenean egindako proposamena gorabehera, erabakia arrazoitu egin beharko du.

3.3.2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK)

3.3.2.1. Zenbatekoen araberako bereizketa

Kontratu hauei dagokienez (hornidura, zerbitzuak eta beste batzuk), hiru prozedura ezberdin aplikatuko da diru zenbatekoa gorabehera. Horrela:

- a) 17.999,99 euro arteko kontratuak.
- b) 18.000 eta 99.999,99 euro arteko zenbatekoa duten kontratuak.
- c) Hornidura eta zerbitzu kontratuak, 100.000 euro eta araubide harmonizatuaren araudipean ez dauden kontratuentzat Europako Batzordeak finkatutako gehieneko zenbatekoaren artean, eta baita gainerako kontratuak ere, kopuru mugarik gabe.

Aipatu diren kopuru guztiak BEZ gabekoak direla ulertzen da.

3.3.2.2. 17.999 euro arteko kontratuak.

Horrelako kontratuetan, **esleipen zuzenera** joko da orokorrean.

3.000 eurotik aurrerako eskuratzeetarako, erosketaren arduradunak "Kontratazio eskaeraren" formularioa bete beharko du eta Koordinazioari eta Kontratazio Organoari aurkeztu. Kasuan kasuko aurrekontua bilduko da, eta hura BHGrik onetsiko du. Ondoren, zera egingo du: Kasuan kasuko kontratua sinatu edo Koordinazioaren partetik aurrekontu hori espresuki eta idatziz onartu, hura onartzen dela jakinaraziz.

Kontratua bete dela egiaztatuta, prezioa ordainduko da, kontratistak kasuan kasuko faktura eta haren onarpena aurkeztu eta gero.

Hala eta guztiz ere, prozedura negoziatuari –irekia edo mugatua– ere heldu ahalko zaio; kasu horretan, jarraian datorren idatz zatian xedatutakoa da aplikatu beharko dena.

3.3.2.3. 18.000 eta 99.999,99 euro arteko zenbatekoa duten kontratuak.

Horrelako kontratuetan, esleipena **prozedura negoziatua –irekia edo mugatua–** izapidetzearen bitartez esleituko da. Aukeratu den prozedura zehatza zein den azaldu beharko da Klausula Administratiboen Agirian. Horrelakorik existituko ez balitz, aukeraketa Kontratazio Organoaren erabaki espresaren ondotik egingo litzateke.

3.3.2.3.1. Prozedura negoziatua

Prozedura negoziatua aukeratzen bada, hurrengo izapideak bete beharko dira:

a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera egiteko, BHGko barruko langileek “kontratazio eskaeraren” formularioa bete beharko dute.

b) **Eskaintza eskaera:** Gutxienez, kontratuaren xedea gauzatzeko gaitasuna duen hiru enpresari eskatu beharko zaio eskaintza egitea.

c) **Baldintza agiria:** Klausula Administratiboen Agiria landuko da (jarraibide hauetako B idatz zatiko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin) eta baita Ezarpen Teknikoen Agiri bat ere.

d) **Publizitatea:** Kontratuaren zenbatekoa 50.000 euro edo gehiagokoa denean, lizitazioa eta esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

e) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Administratiboen Agirian finkatzen dena izango da.

e) **Ebaluazioa:** Klausula Administratiboen Agirian finkatu egingo dira enpresekin negoziatu beharreko alderdi ekonomikoak eta teknikoak zeintzuk diren.

Sozietateko langile teknikoek aldetik, “esleipenerako proposamen” arrazoitua egingo da. Argi jaso beharko dira egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, horiek onartu edo gaitzesteko edukitako arrazoiak eta egindako negoziazioak.

3.3.2.3.2..Prozedura irekia edo mugatua

a) **Eskaera:** Kontratazio eskaera egiteko, BHGko barruko langileek “kontratazio eskaeraren” formularioa bete beharko dute.

c) **Baldintza agiria:** Klausula Administratiboen Agiria landuko da (jarraibide hauetako B idatz zatiko II. epigrafean aurreikusitako edukiarekin) eta baita Ezarpen Teknikoen Agiri bat ere.

d) **Publizitatea:** Lizitazioa eta horri dagokion esleipena argitaratu egingo dira, gutxienez, kontratatzailearen profilean, prozedura irekian.

Derrigorrezkoa izango da ere lizitazioaren iragarkiari publizitatea ematea eta hura esleitzea, aukeratzen den prozedura mugatua bada eta kontratua 50.000 € edo gehiagokoa bada.

d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Administratiboen Agirian finkatzen dena izango da.

e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak ezkutukoak izango dira eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, Klausula Administratiboen Agirian finkatzen den moduan.

e) **Ebaluazioa:** Kontratua esleitzeko oinarri hartzen diren irizpideak, eta baita haztapena egiteko hartzen direnak ere, Klausula Administratiboen Agirian adieraziko dira.

Kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako irizpideei heldzerik egongo da, adibidez: kalitatea, prezioa, prestazioaren burutzapen edo entrega epea, erabileraren kostua, ingurumen ezaugarriak edo gizarte eskakizunak betetzearekin zerikusia dutenak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, disponibiltatea eta ordezeko piezen kostua, mantentze lanak, laguntza teknikoa, salmenta osteko zerbitzua.

Kontratazio Organoak orokorrean abantailatsuen den eskaintzari esleituko dio kontratua, Klausula Administratiboen Agirian aurreikusitako proposamenen balorazioa egiteko finkatzen diren irizpide objektiboek jarraiki eta esleipen proposamenaren bistan.

Kontratazio Organoak kontratua egindako proposamena gorabehera esleitzen ez duenean, erabakia arrazoitu egin beharko du.

3.3.2.4. Kontratua, 100.000 euro eta araubide harmonizatuaren araudipean ez dauden kontratuentzat Europako Batzordeak finkatutako gehieneko zenbatekoaren artean.

Horrelako kontratuetan, esleipena **prozedura irekia edo mugatua** izapidetzearen bitartez esleituko da. Aukeratu den prozedura zehatza zein den azaldu beharko da Klausula Administratiboen Agirian. Prozedura negoziatu bidez esleitzerik ere egongo da, nahiz eta Legeak onarturiko kasuetan bakarrik.

Prozedura irekia nahiz mugatua aukeratzen den alde batera utzita, hurrengo arau hauek aplikatuko dira:

a) **Eskaera:** BHGko barruko langileek "kontratazio eskaeraren" formularioa izenekoak betetzearen ondotik egingo da.

c) **Baldintza agiria:** Klausula Administratiboen Agiria eta Ezarpen Teknikoen Agiria landuko dira.

d) **Publizitatea:** Lizitazioa eta haren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da, gutxienez.

d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Administratiboen Agirian finkatzen dena izango da.

e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak ezkutukoak izango dira eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, Klausula Administratiboen Agirian finkatzen den moduan.

e) **Ebaluazioa:** Kontratua esleitzeko oinarri hartzen diren irizpideak, nahiz haztapena egiteko balio dutenak, Kontratazio Organoak finkatuko ditu eta Klausula Administratiboen Agirian adieraziko dira.

Kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako irizpideei heldzerik egongo da, adibidez: kalitatea, prezioa, prestazioaren burutzapen edo entrega epea, erabileraren kostua, ingurumen ezaugarriak edo gizarte eskakizunak betetzearekin zerikusia dutenak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, disponibilitatea eta ordezeko piezen kostua, mantentze lanak, laguntza teknikoa, salmenta osteko zerbitzua.

Kontratazio Organoak orokorrean abantailatsuen den eskaintzari esleituko dio kontratua, Klausula Administratiboen Agirian aurreikusitako proposamenen balorazioa egiteko finkatzen diren irizpide objektiboek jarraiki eta esleipen proposamenaren bistan.

Kontratazio Organoak kontratua egindako proposamena gorabehera esleitzen ez duenean, erabakia arrazoitu egin beharko du.

3.4. JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

Ordina juridikzional zibila izango da eskumendun kontratuak prestatu eta esleitzeari buruzko gai gatazkatuak ebazteko, eta baita kontratuen eraginen, horiek betetzearen eta iraungitzearen inguruan sortzen diren gaiak ebazteko ere (SPKLren 21. art.).

3.5. BITARTEKARITZA

Entitateak sinatzen dituen kontratuen eraginei, horiek betetzeari eta iraungitzeari buruz sor daitezkeen aldeak bitartekaritzapean jarri ahalko dira, Bitartekaritzari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legean jaso diren xedapenei jarraiki (SPKLren 30. art.).

4. KONTRATATZAILEAREN PROFILA - PUBLIZITATE PRINTZIPIOA

BHGrik Internet bidez barreiatuko du kontratatzailearen bere profila. Helburua kontratuen alorreko bere jardunean gardentasuna edukitzea eta hari buruzko informazioa publikoki eskuratzen dela bermatzea izango da.

Publizitate printzipioaren eskakizunak betetzat joko dira BHGren Kontratatzailearen Profileen hurrengo kontratuak sartzearekin:

- Zerbitzu eta horniduren kontratuei buruzko informazioa, betiere, horien zenbatekoa 50.000 euro edo gehiagokoa bada (BEZ kanpo) prozedura negoziatuarentzat edo mugatuarentzat, eta 18.000 euro edo gehiagokoa bada (BEZ kanpo) prozedura irekiarentzat.
- Obra kontratuei buruzko informazioa, erabilitako prozedura dena dela ere, betiere, zenbatekoa 50.000 eurokoa edo gehiagokoa bada (BEZ kanpo). Egokitzen diren beste bide batzuk erabiltzea ere zilegi izango da, eta salbuespen bakarrak SPKLn publizitate kanpo utzitako kasuak izango dira.

Kontratzailearen profileraren sartzeko modua, besteak beste, Baldintza Agirietan eta Litzitazioaren iragarkietan zehaztuko da.

Kontratzailearen profila hartzen duen sistema informatikoa dispositibo bat eduki beharko du, benetan egiaztatu ahal izateko bertan sartzen den informazioaren barreiaren publikoaren hasiera unera.

Horrez gain, kontratatzailearen profilak BHGren kontratu jarduerari buruzko edozein datu eta informazio sartu ahalko du, besteak beste: Irekita dauden lizitazioak edo martxan daudenak eta horiei buruzko dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, baliogabetu diren prozedurak, harremanetarako guneak eta Kontratazio Organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen komunikazio bideak, eta abar.